Informa el alcalde Sr. De Potestad que dado que el Aezkoako Eguna que se celebrará este año en Hiriberri coincide en fecha con la tradicional feria de otoño habrá que estudiar la posibilidad de trasladarla al cuarto domingo de septiembre pues entiende que no sería conveniente para nadie la coincidencia de dos concursos o exposiciones de ganado en un territorio tan próximo.

Manifiesta el concejal Sr. Dufur que la feria de Burguete es muy anterior al Aezkoako Eguna y que deberían respetar las fechas.

Respondiendo el alcalde Sr. De Potestad que el calendario viene condicionado por las fechas de las fiestas de Aurizberri/Espinal y que esta misma semana su presidente Sr. Landabere le ha transmitido esas fechas.

La Corporación se da por enterada.

#### **Mapa Local**

Informa el alcalde Sr. De Potestad que ayer tuvo lugar en Lumbier una reunión de comarca organizada por el Departamento de Administración Local y la Federación Navarra de Municipios y Concejos para estudio de las futuras entidades locales.

La Corporación se da por enterada.

Por último y con carácter de urgencia, se informa por el alcalde Sr. De Potestad que dentro de la convocatoria de ayudas de la mencionada Fundación se ha concedido una ayuda de 6.000 € al proyecto Akelarre. Ayuda que requiere la aprobación de un convenio firmado entre las partes. Así mismo, informa que el concejal Sr. Karrika Iribarren junto con Jon Beunza establecerán un plan para el desarrollo del proyecto.

Se acuerda por unanimidad, aprobar el proyecto y autorizar al alcalde Sr. De Potestad la firma del convenio exigido por la Fundación Caja Navarra.

## **21.- RUEGOS Y PREGUNTAS**

- Toma la palabra el concejal Sr. Dufur para manifestar que el río, a la altura de la balsa de ranas de Xuringoa se va a comer el camino proponiendo quitar tierra del lado derecho del camino y poner piedras a modo de escollera. Se acuerda estudiar este tema en comisión de medio ambiente ya que mediante auzolanes no parece que se pueda

hacer. El alcalde Sr. De Potestad, señala que hablará con el ingeniero Fermín Izko para tratar de meter esta actuación en trabajos forestales y hablará también de este tema con la técnico de la Confederación Hidrográfica del Ebro para que venga a verlo.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 19,40 h. del mismo día, se levanta la sesión, de lo que doy fe.

-----

Aurizko udaletxean, 2016ko martxoaren 11n, arratsaldeko 17:00etan, Udala bildu zen bilkura arrunta egiteko. Hauek izan ziren bertaratutako zinegotziak: Aneva Cilveti Loperena, Iñaki Xabier Yoller Urdiroz, Pedro Juan Karrika Narbaitz, Mikel Gaztelu Alonso eta Francisco Javier Dufur Oharriz, bilkuraburu alkatea, Luis De Potestad Tellechea, izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure. Arkaitz Karrika Iribarren zinegotziak etortzerik ez duela jakinarazi du.

#### **1.- 2015EKO ABENDUAREN 21EAN EGINDAKO BILKURAREN AKTAREN ONESPENA**

Udalbatzak erabaki du aho batez 2015eko abenduaren 21ean egindako osoko bilkuraren akta onartzea.

#### **2.- 2015eko ABENDUAREN 18tik MARTXOAREN 8a ARTE ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN INGURUKO INFORMAZIOA**

Alkateak, de Potestad jnk., 2015eko abenduaren 18tik martxoaren 8ra eman dituen ebazpenen gaineko informazioa eman du, horiek bilkurako espedientean daude eta udalkide guztiak jakitun dira.

#### **3.- 2016ko AURREKONTUAREN HASIERAKO ONESPENA**

Se acuerda por unanimidad, dejar pendiente sobre la mesa para próxima sesión la aprobación del expediente del presupuesto del año 2016, con el fin de regularizarlo y cumplir con las tres reglas de estabilidad presupuestaria.

#### **4.- 2016ko PLANTILLA ORGANIKOAREN ONESPENA.**

Alkateak, de Potestad jk. hitza hartu du eta esan du ez dagoela aldaketarik aurreko urtearekin alderatuta.

Udalbatzak erabaki du aho batez 2016ko plantilla organikoa honakoa izatea.

Funtzionarioak

Lanpostua: Zerbitzu Anitzetako Langilea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Maila: E. Lan egoera: Jardunean. Mailako osagarria %15. Lanpostuko osagarria %15,77 Lanaldi osoa.

Funtzionarioen izen-zerrenda.

Z.A.L.: Jesús Román Pedroarena Etulain

.

Langile finkoak.



Lanpostua: Administrari Laguntzailea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Maila: D. Lan egoera: Jardunean. Mailako osagarria %12. Lanpostuko osagarria: %28,35, Lanaldia %28,56.

Lanpostua: Administrari Laguntzailea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Maila: D. Lan egoera: Jardunean. Mailako osagarria %12. Lanpostuko osagarria: %28,35, Lanaldia %28,56.

Lanpostua: Zerbitzu Anitzetako Langilea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Maila: E. Lan egoera: Jardunean. Mailako osagarria: 15%. Lanpostuko osagarria %8,77, Lanaldia: %35

Lan kontratudun finkoen izen-zerrenda.

Administrari laguntzailea Ana Isabel Erneta Erro.

Administrari laguntzailea María José Garralda Zubiri.

Zerbitzu Anitzetako Langilea: Cristina Carra García

Behin-behineko lan kontratudunak:

Lanpostua: Euskara teknika Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Euskera. Maila: B. Lan egoera: Jardunean. Mailako osagarria: 15%. Lanpostuko osagarria %6,73 Lanaldi osoa.

Behin-behineko langileen izen-zerrenda:

Euskara teknika Teresa Iribarren Larrea.

Orreaga eta Erroibarko Udalekin bateratutako zerbitzuak.

Kargua: Idazkaria. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. A Maila. Lanpostuko osagarriak: %40, Bateriaezintasuna %35 Lanaldi osoa.

Administrazio lan araubidean kontratatutako langileen izen-zerrenda:

Ezcurra Irure, M<sup>a</sup> Soledad. Bitarteko idazkaria. Kokalekua: Jardunean. Antzinasuna 2012/06/11

## **5.- 2016ko LAN EGUTEGIA**

Alkateak, de Potestad jnk., hitza hartu du eta Aurizko Udalaren langileen eta Administrazio Zerbitzuen batasuneko langileen lan egutegiaren proposamena irakurri du; proposamena martxoaren 10eko Lehendakaritza, Justizia eta Barneko Kontseilariak emandako 257/2011 Foru Aginduan oinarritzen da; haren bidez Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen lan ordutegia apurka malgutzeko neurriak ezartzeko jarraibideak onetsi ziren; hartara, Udalak bizitza pertsonala eta familiakoa bateragarri egiteko neurriak sustatu nahi ditu bai eta lanaren antolakuntza hobetu ere, bizilagunei atentzio hobea eman eta langileen errendimendua hobetzeko. Aldi berean presentzien kontrol sistema ezarriko da, haren kostua udalkideek Udalari eman dioten lansarien bidez neurri batean estaliz. Eta hori konstarazi nahi da.

Egutegiari dagokionez langile bakoitzak urtean 1592 ordu lan egin behar ditu, honela antolatuta: Astelehenetik ostiralera bitarteko eguneroko lanaldia 7 ordu eta 20 minutukoa izanen da Bulego ordutegia honela banatuko da:

- Langile guztiek egon beharko dute, ezinbestean, lanpostuan, 9:00etatik 14:30era, astelehenetik ostiralera.

Idazkariak hala esanda, ordutegi hori ezinbestekoa da goizez lan egiten duten langileentzako, baina langile guztiek ez dute goizez lan egiten, Cristina Carra adibidez, berak arratsaldez justifikatuko du edo bi aldeek adostuko duten ordutegiaren arabera.

Lanaldi osoa betetzeko gainontzeko orduak, bi, 7:30etatik 9:00etara eta 14:30etik 17:00etara egingo dira. Bertaratze kontrola presentziak kontrolatzeko sistema automatiko baten bidez egingen da, eta langile guztiek lanera sartzen zein ateratzean fitxatu behar dute. Derrigorrezkoa izango da lanaldiaren hasieran zein bukaeran fitxatzea bai eta lanaldiaren bitartean egiten diren irteera-sarrera guztietan.

-Lanaldiaren bitartean langileek gehienez ere hogeita hamar minutuko atsedena egin ahalko dute. Atsedena ez du zerbitzuengan eraginik ezan behar eta 10:00etatik 13:00etara egingo da.

- Aparteko orduak. Atsedena orduen bidez konpentsatuko dira. Langile bakoitzak gehienez ere 10 orduko saldo positibo edo negatiboa izan ahalko du eguneko 7 ordu eta 20 minutuko lanaldiarekiko. Saldoa egunero eguneratuko da presentzien kontrol sistemaren bidez.

10 orduko saldo positibotik gorako denbora ez da inola ere ez sisteman kontuan hartuko ezta beste era batera konpentsatuko.

10 orduko saldo negatibotik gorako denbora lansariaren jaitsiera ekarriko du.

Egutegi hau indarrean sartu arte egindako aparteko orduak orduen bidez konpentsatuko dira.

Algoazilaren aparteko orduak ekonomikoki konpentsatuko dira ehorzketak egin behar dituenetan, eta proposamen hau egiten da idazkariari eskatutako txostenaren arabera.

Ordaindu bai baino errekueratu behar ez diren festa egunen egutegia:

Urtarrila: 1a eta 6a

Martxoa: 24a, 25a eta 28a

Ekaina: 24a

Uztaila: 25a

Abuztua: 15a

Urria: 12a

Azaroa: 1a

Abendua: 3a, 5a, 6a, 8a eta 26a

Oporrei, baimenei eta lanaldiaren murrizketei dagokionez, administrazio publikoetako langileekiko aplikagarria den arautegiari jarraituko zaio, hortaz:

- Oporraldiak: 27 egun.
- norbere aferetarako egunak: 3 egun.
- Herriko festak: zaindariaren eguna gehi 3 egun.
- orduen poltsa: 6 h. 35 ‘

Proposamena Erroibar-Auritz-Orreagako Administrazio Zerbitzuen Batasunari jakinaraziko zaio bertan ere ezartzeko eta NAOean zein udaletxeko iragarki oholean argitaratzea.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da de Potestad jnk., alkateak, proposatu duen lan egutegia onartzea:

1.- Egutegiari dagokionez langile bakoitzak urtean 1592 ordu lan egin behar ditu, honela antolatuta: Astelehenetik ostiralera bitarteko eguneroko lanaldia 7 ordu eta 20 minutukoa izanen da Bulego ordutegia honela banatuko da:

- Langile guztiek egon beharko dute, ezinbestean, lanpostuan, 9:00etatik 14:30era, astelehenetik ostiralera.

Lanaldi osoa betetzeko gainontzeko orduak, bi, 7:30etatik 9:00etara eta 14:30etik 17:00etara egingo dira. Bertaratze kontrola presentziak kontrolatzeko sistema automatiko baten bidez egingen da, eta langile guztiek lanera sartzen zein ateratzean fitxatu behar dute. Derrigorrezkoa izango da lanaldiaren hasieran zein bukaeran fitxatzea bai eta lanaldiaren bitartean egiten diren irteera-sarrera guztietan.

-Lanaldiaren bitartean langileek gehienez ere hogeita hamar minutuko atsedena egin ahalko dute. Atsedena ez du zerbitzuengan eraginik ezan behar eta 10:00etatik 13:00etara egingo da.

2.- Aparteko orduak. Atsedena orduen bidez konpentsatuko dira. Langile bakoitzak gehienez ere 10 orduko saldo positibo edo negatiboa izan ahalko du eguneko 7 ordu eta 20 minutuko lanaldiarekiko. Saldoa egunero eguneratuko da presentzien kontrol sistemaren bidez.

10 orduko saldo positibotik gorako denbora ez da inola ere ez sisteman kontuan hartuko ezta beste era batera konpentsatuko.

10 orduko saldo negatibotik gorako denbora lansariaren jaitsiera ekarriko du.

Algoazilaren aparteko orduak ekonomikoki konpentsatuko dira ehorzketak egin behar dituenetan, eta proposamen hau egiten da idazkariari eskatutako txostenaren arabera.

Ordaindu bai baino errekueratu behar ez diren festa egunen egutegia:

Urtarrila: 1a eta 6a

Martxoa: 24a, 25a eta 28a

Ekaina: 24

Uztaila: 25

Abuztua: 15

Urria: 12

Azaroan: 1

Abendua: 3, 5, 6, 8, 26

4.- Oporrak, Baimenak eta Lanaldien murrizketak. Administrazio publikoetako langileekiko aplikagarria den arautegiari jarraituko zaio.

5.- Proposamena Auritz-Erroibar-Orreagako administrazio Zerbitzuen Batasunari jakinaraziko zaio aplikatzeko.

6.- Egutegia NAOean eta udaletxeko iragarki-oholean argitaratzea.

## **6.- SARBIDEEN ETA PRESENTZIEN KONTROL SISTEMAREN AURREKONTUAREN ETA ADJUDIKAZIOAREN ONESPENA**

Alkateak, de Potestad jnk., hitza hartu du eta esan du sarbideen eta presentzien kontrol sistemari dagokionez, beste bi eskaintza eskatu dituela dio, abenduan eskatutakoarekin alderatzeko, nahiz eta AEFLren 73. artikulua arabera hornidura kontratuen kasuen, 15.000 euro + BEZ baino gehiago ez bada, “ezinbestekoa izango den bakarra da alde aurretik kreditua gordea edukitzea, aplikagarria den aurrekontuen legearen arabera, eta dagokion faktura aurkeztea”.

Salto System enpresari aurrekontua eskatu zaio eta hau da:

-Udaletxeko sarbideen kontrol sistema: 2066 € gehi BEZ.

-Kultur Etxeko sarbideen kontrol sistema: 4.573,55 € gehi BEZ.

-Presentzien kontrol sistema: 967 € gehi BEZ (batasunak ordaintzeko proposamena)

Guztira BEZ barne ..... 9203,93 €

Eskaintzarik hoberena dela kontuan hartuz, aho batez erabaki da:

- Salto Systems enpresak aurkeztu duen aurrekontua onartzea.

- Presentzien kontrol sistema Administrazio Zerbitzuen Batasunari bere gain hartzea proposatzea, hiru Udalen interes orokorrekoa baita, eta presentzien kontrola Udal bakoitzari bere gain hartzea proposatzea, bere aurrekontuen kargura.

### **7.- INFORMATIKA EKIPOAK BERRITZEKO PROPOSAMENA**

Alkateak, de Potestad jnk., hitza hartu du eta azaldu du programa informatikoaren bidez 1500 € aurreztuko direla eta Fran Arraezekin harremanetan jarri zela fotokopiagailua eta informatika ekipu berrien aurrekontua aurkez dezan.

Fotokopiagailuari dagokionez, gomendatu duen proposamena da HP Officejet Pro 8615 hartze, 3 urteko bermea du eta 149,00 €, BEZ barne, balio du, ez duela Dina3 fotokopiatzeko aukerarik ematen, baina fotocopia kopurua kontuan hartuz eta gastuari dagokionez askoz ere gehiago ezin denez gastatu, nahikoa dela uste da. Modu berean jakinarazi du bermeak irauten duen 3 urtetan toner ofizialak erabiliko direla eta ondoren marka zuria dutenak.

Informatika ekipoei dagokienez dorre bat, lizentziak, tresna osagarriak, monitoreak, lana, zerbitzaria eta suebakiaren aurrekontua aurkeztu da (bigarren dorrea aldatzea beharrezkoa den urtean zehar ikusiko da).

Udalbatzak erabaki du aho batez:

1.- Fotokopiagailuaren aurrekontua onartzea, hots, 150,00 €, BEZ barne.

2.- Informatika ekipuak berritzeko Arraez jaunarekin berriro ere hitz egitea erabaki da, zer nahi dugun eta zer aldatu behar den zehazteko eta horren balorazio osoa alkateari ematea eskatuko zaio,.

### **8.- ASEGURUEN KONTRATUEN BERRIKUSPENA**

Alkateak ,de Potestad jnk., jakinarazi du alde batetik beharrezkoa dela Irati Irratiarekin konexioa egiteko Girizun jarri den antenarentzako aseguruia kontratatzea eta bestetik, gaur egun Udalak dituen aseguruak berrikusi behar direnez, Zihurko aseguru etxeari eskatu ziola horiek berrikustea eta, hala bazegokion, eskaintza berriak aurkeztea. Halaber, alkatearen gizarte segurantzaren eman denez eta Udalak diru hori aurrezten duenez, udalkideentzako istripu aseguruaren aurrekontua aurkeztea eskatu da, eta haren kostua urtero gutxienez 508,75 eurokoa da, karguaren eginkizunetan istripurik gertatuz gero kalte-ordainak jaso ahal izateko.

Egungo aseguruak aztertuta, aseguru etxeak proposatu du Erantzukizun Zibileko aseguruia berritzea, eta eguneratzean, kuota 850,20 eurora jaisten da, eta aldi berean aurreko aseguruia baino hobea da. Eraikinen aseguruari dagokionez, Mutuarekin hitz egin da haien aseguruia mantentzeko, baina eskaintza hobekia daudenez, beren proposamena hobetzea eskatuko zaio eta lortuko ez balitz, aldatuko da. Ibilgailuari dagokionez, iraila arte indarrean dago bere aseguruia, eta data iristen denean ikusiko da mantentzen den edo aldatzen den.

Azkenik, antenarentzako aseguruari dagokionez, Zihurko enpresak egin duen proposamena 456,11 € da eta Girizuko antena, Auritzeta Luzaideko Udalei dagokiena, zein Erroibarko antena estaltzen ditu, baina instalakuntzaren jabea Aezkoako Batzarre Nagusia denez, proposatu da Batzarrea aseguruaz arduratzea eta gero udal bakoitzak bere zatia hari ordaintzea.

Zihurko aseguru etxeak egin dituen proposamenak aztertuta, aho batez erabaki da:

- 1.- Udalkideentzako istripu aseguruak kontratatzea, urteroko kostua 508,75 euro dela.
- 2.- Erantzukizun Zibila, Arrisku-anitzak eta ibilgailuaren aseguruak berrikusi eta eguneratzea.
- 3.- Aseguru etxeak egin duen proposamena Aezkoako Batzarre Nagusiari eta Luzaideko eta Erroibarko Udalei jakinaraztea, Batzarreak aseguruak ordainduz, hots, 456,11 €, eta gero gastu hori Auritz, Erroibar eta Luzaideko udalen artean banatuz, hau da, %50 Auritz eta Luzaideren artean eta beste %50 Erroibarko Udalak ordainduz.

## **9.- LINDUS 2 BEREZKO FINANTZAZIOAREKIN LOTUTAKO ERABAKIA**

Jarraian Lindus 2 Proiektuaren finantzazioari dagokionez, alkateak, de Potestad jni., jakinarazi du proiektuaren kostua osotara 362.588,00 eurokoa dela, hiru urtetan ordaintzekoa, 138.446€ 2016an, 99.660€ 2017an eta 01.961€ 2017an. Hortik %65 (235.682,00€) FEDER funtsen bidez diruz laguntzen da, %25 (90.647,00€) Nafarroako Gobernuak laguntzaren bidez eta gainontzeko %10a (36.259,00€) udalaren funtsen bidez.

Apirilaren 1a baino lehen Aurizko udalak proiektuaren kostuaren %35 bere gain hartu ahal duenaren ziurtagiria igorri behar da, baina hori egin daiteke Nafarroako Gobernuak %25a ordainduko duela benetan egiaztatzen bada. Bestela Udalak, bai alkateak de Potestad jnk, zein idazkariak, Ezcurra ak., esanda, ez du ahalmenik proiektuari aurre egiteko eta aurrera egin ala ez erabaki beharko du.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da:

- 1.- Lindus 2 proiektuan parte hartu eta haren ardura hartzea.
- 2.- Aurizko Udalak honako finantza-planaren arabeko konpromisoa hartzen du:

Aurrekontua, guztira:	FEDERreko laguntza 65%	Autofinantzazioa %10	Baterako finan: publik: %25
362.587 €	235.682 €	36.259 €	90.647 €

- 3.- Eskatutako baterako finantzaketa publikoak lortu ezean, Aurizko Udalak baterako finantzaketa horiei dagokion autofinantzaketa ordaintzeko konpromisoa hartzen du.

## **10.- ORDENANTZEN ALDAKETEN BEHIN BETIKO ONESPENA.**

Alkateak, de Potestad jnk., hitza hartu du eta jakinarazi du honako ordenantzen aldaketa hasiera batean onetsi zirela eta behin betiko onetsi behar direla: Hilerrikoa (2016ko urtarrilaren 12 6 zk. duen NAO), Herri aprobetxamenduena (2016ko urtarrilaren 12ko 6 zk. duen NAO), Auzolanarena (2016ko urtarrilaren 13ko 7 zk. duen NAO) eta Urarena (2016ko urtarrilaren 21eko 13 zk. duen NAO). Jose Irigarai Gil jnk. Hilerriko, Herri

aprobetxamenduetako eta Auzolanetako Ordenantzen aldaketei alegazioak aurkeztu dizkie eta alkateak, de Potestad jnk., horiek erantzun ditu:

## HILERRIA

21. artikuluari egindako alegazioak.

Ez da inola ere ez adjudikaziodunei hilobiak egoera onean mantentzeko erantzukizunetatik salbuesten, 21. artikulua honela dio: “Lauki edo "fuesak" segur, xahu eta apain atxikitzea titularren betebeharra da” eta 26. artikulua hori egiten ez bada zeintzuk izango diren ondorioak aipatzen ditu “Konplitzen ez badu Udalak titularra zehatuko du; behar diren garbiketa lanak egin ditzake titularren bizkar”. Aipatutako epea bukatuta, Udalak era subsidiarioan egin ditzake, kostua interesatuari kobratuz. Ordaindu ezean, “fuesa”ren esleipena galdu eta Udalari itzuli beharko zaio.

Udalak nahi duena da hilerriaren irudia indartzea, are gehiago 204ko Espainiako hilerri hoberenaren saria irabazi ondoren, eta gutxieneko mantentze lanek ez dute ekartzen hilobien mantentze osoa, ez dute haien titularrak mantentze betebeharrak salbuesten, beste aldetik Udalak uste du sentimenduzko arrazoiengatik gutxienez egiten jarraituko dutela.

Irigaray jnk. dio ez dela lurreko hilobiekin zer egingo den arautzen. 21. artikulua berriro irakurtzen badu ohartuko da gutxieneko lanen artean “lurrez betetzea” dagoela. Logikoa da lurrez betetzeak lurra berdintzea dakarrela, bestela hilerriaren apainketa mantentzeko Udalak duen asmoaren aurka joango litzateke.

Irigaray jnk. lan horiek noiz egingo diren azaldu dituen zalantzen aurrean, datak ezin dira zehaztu, Udalak auzolanaren bidez edo algoazilaren bidez edo zerbitzu anitzetako langileen bidez egin ahalko dituelako, baina logikoa denez eta udalaren interesekoa denez, udan egingo dira, garai horretan belarra azkarrago handitzen baita, bai eta Sainduen Egunaren bezperetan, garai horretan jende gehiago hurbiltzen baita kanposantura.

Azkenik, adjudikaziodunen intimitateari dagokionez, mantentze lana ez da derrigorrezkoa eta titularrei ez zaie belarra edo lurra jartzera behartzen; adjudikaziodunek bere hilobiak mantentzen badituzte, Udalak ez du zertan lan horiek egin beharko. Bestela, utzikeria arrazoiak direla eta edo mantentzeko baliabiderik ez izateagatik, hilerriaren irudia indartzeko interes orokorra gailentzen da, 2014ko hilerririk hoberena izan zeneko izendapenari men eginez.

Tasei buruzko I Eranskinari egindako alegazioak:

Irigaray jnk. dokumentazio oso zehatza aurkeztu du, eta hori ez du udaletxean lortu, ez baita Erregistro Orokorrean hilerriari buruzko dokumentazioa eskatu duen instantziarik agertzen. 2015ean alkate izendatu ondoren artxioboaren giltza bat aurkitu nuen, idazkaritzatik kanpo ((6/1990 Foru Legearen 239 k artikulua dio fede publikoaren zereginen artean entitateko artxioben eta erregistroen ardura nagusia dagoela), eta horiek horrela nire giltzak utzi nituen, karguaz jabetu eta asteko epean, eta idazkariak artxioboaren egoerari buruzko ziurtagiria egiten ez duen bitartean, egoera kezagarria da. Nondik atera du Irigaray jnk 1974ko dokumentu hori eta udal artxiaboko zenbaterainoko dokumentazioa dauka Irigaray jnk.?

Udalak ez du dirua lortzeko asmorik, baizik eta eskubideak modu justu batez arautzea, gaur egun dauden ehorzte mota ezberdinetara egokituz. Hilerria bizilagunak ehorzteko

egin da, eta Udalak badaki hainbat arrazoiengatik herritik kanpo joan diren askok herrian ehortzi nahiko luketeela. Hala ere, beste toki batzuetan erroldaturik egoteak gure herriko bizilagunekiko abantaila batzuk ditu, eta bidezkoa da ahal den neurrian hori isladatzea.

Modu berean Udalak hilobiak mantentzeko lanak bere gain hartzeak dirua lortzeko asmorik ez duelako seinale da, bai eta eskubideen berdinketaren seinale ere. Mantentze lanak kasu guztietan berdin egingo dira, bereizketarik egin gabe.

Algoazilari ordainduko zaionari dagokionez, Udalak algoazilaren lanak gaur egun funtzio publikoaren Estatutuak arautzen duen moduan ordainduko dira eta hori nominan agertuko da, ez bakarrik alkatearen ebazpenean.

Hortaz, alegazioa ez onartzea erabaki da.

### AUZOLANAK

5. Artikuluari aurkeztutako alegazioak. Irigaray jnk. dio artikulua nahasia eta praktikan jartzeko zaila dela, eta Udalari leporatzen dio indarrean dagoen artikulua ez dela aplikatu 2015eko abuztuan egindako auzolanean, aplikatzeko askoz ere errazagoa denean.

Irigaray jnk. dioen artikulua berak onetsi zuen alkate zenean, 2014ko uztailean. Irigaray jnk. ez bazuen datu base bat prestatu udalak ez du espero orain proposatzen dena ulertzea, eta proposamen hori lehenago egin zen Auritzen eta gaur egun inguruko herrietan indarrean dago. Irigaray jnk. alkate zenean onetsi zen auzolanaren ordenantza, 2014an, formula hori onartzea proposatu nuen, baina ez zen onartu, eta auzolanaz salbuesteko minusbaliotasunaren ehunekoari buruzko beste emendakin bat onartu zen, baina hori ez zen gero NAOn ateratako iragarkian agertu, auskalo zergatik.

3. artikuluari egindako alegazioak. Herriko ondasunak mantentzearen onurak Auritzen etxebizitza duten guztien onerako dira, ez bakarrik udalarentzako aurrezteak dakarrelako, dirua beste gauza batzuetan gastatuz, baizik eta herriko ondasunen onuradun gisa. Bizilagunen arteko harremanak hobetzeko sustatu beharra dago horrelako ekimenak, guztion onurarako baitira. Bertan bizi ez diren bizilagunei ez zaie gustatuko bide garbi eta ongi balizatutako bide batetik paseatzera joatea edo zulorik gabeko pista batetik ibiltzea edo instalazio publikoak txukun ikustea?

Hortaz, alegazioa ez onartzea erabaki da.

### HERRI-APROBETXAMENDUAK

16. Artikuluari egindako alegazioak. Basozaintzako Zerbitzuak Udalari jakinarazi zion egur loteak esleitzeko orduan nahasketa handia zegoela, eta hori Udalaren interesen kontra doala, etxeko egurra markatu eta esleitzeko urtero kupoa dagoelako bai eta etorkizunean egingen diren markazioen kasuan ere, gehiegi ustiatu baita.

Udalak 2014an egindako Alkaetaren bidez egoera hori sustatu zuen eta ahal den neurrian hori zuzendu behar da, herriko baso ondarearen jasangarritasuna sustatzeko.

Hortaz gain, auzolanak betetzeak badakar herriko ondasunez gozatzeko onura eta, hortaz, ez du herri-aprobetxamenduekiko harreman zuzenik.

Egur lote osoa edo zati bat izateko erroldaturik egin behar da eta herrian bizi, edo gutxienez erroldaturik egon. Adjudikatutako egur lotearen edo erositakoaren arteko diferentzia ez da horren handia udalari lotea nahitaez adjudikatzea eskatzeko. Aldea ez

da horren handia eta badaude beste aukera batzuk, adibidez baso ustiaketan ondoren gelditzen diren egurrak edo pago eroriak.

Hortaz, alegazioa ez onartzea erabaki da.

Udalbatzak erabaki du aho batez:

1.- Jose Irigaray Gil jnk. Hilerriko, Herri aprobetxamenduetako eta Auzolanetako ordenantzei egindako alegazio guztiak ez onartzea

2º.- Herriko Hilerriaren erabilera, Herriko Aprobetxamenduak eta Auzolana arautzen dituzten Ordenantzen aldaketak behin betiko onartzea, bai eta Aurizko Udalaren Urzerbitzuko Tarifak arautzen dituen ere eta horiek NAOean argitaratzea, uztailearen 2ko 6/90 foru Legearen 325 artikulua araberara.

3.- Hartutako erabakia Jose Irigaray Gil jaunari jakinaraztea, dagokion ondorioak sor ditzan.

#### **11.- HERRI APROBETXAMENDUAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAREN ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENA**

Alkateak, de Potestad jnk., hitza hartu du eta jakinarazi du 2010eko irailaren 24ko osoko bilkuran herriko aprobetxamenduak arautzen dituen ordenantzaren aldaketa hasiera batean onetsi zen eta ALU bakoitzeko aprobetxamenduan akats bat antzeman dela, biga eta 18 hilabete baino txikiagoko pottokei 1,5 UGM aplikatzen zitzaielako, eta aplikatu beharrekoa 0,5 UGM baita.

Hortaz, aho batez erabaki da herriko aprobetxamenduak arautzen dituen ordenantza modu honetan aldatzea:

1.- Udalak herriko bazkalekuetan sartuko den azientarengatik modu honetan egingo du UGM bakoitzeko:

18 hilabetetik behitiko biga 1: 0,5 UGM 0,5 UGM

18 hilabetetik behitiko pottoka 1: 0,5 UGM

Gainontzeko azientaren kasuan orain arte bezala segituko da..

#### **12.- APARTEKO ORDUENGATIK IDAZKARIAK JASOTAKOAREN ERREKERIMENDUA**

Alkateak, de Potestad jnk., jakinarazi du NAAk emandako ebazpenaren ondoren eta 2010 eta 2011n, Orreaga, Auritz eta Erroibarko Udalen batasunak aurreko idazkariari, Pedro Cenoz Iragui jaunari, ordaindu zitzaizkion aparteko orduak direla eta, BENAC abokatuei eskatu ziela horren gaineko txosten juridikoa egitea, bere ustez aparteko ordu horiek ez zeudelako behar bezala justifikatuak. Txostenak dio ordainketa hori ez zela egin behar izan, langileen estatutuak urtean gehienez ere 80 ordu ordaindu ahal direla diolako, eta kasu honetan bi urtetan 300 ordu dira, eta ez daudelako behar bezala justifikatuak ez dagoelako ez erabakirik ez eta alkate-ebazpenik ere.

Hala ere, idazkaria Batasunak kontratatu du eta ez Udalak eta proposatu du 2016ko maiatza baino lehen Batasunari eskatzea aurreko idazkariari, Pedro Cenoz Iraguiri, diru hori itzul dezala.

Gaztelu zinegotziak hitza hartu du eta esan du kezka dagoela Batasuna osatzen duten beste toki entitateek gaia atzeratu dezaketelako. Alkatea, de Potestad jnk., erantzun du hori ez dela horrela, erabaki hartu eta Batasunari jakinarazten zaionetik epea gelditzen delako.



Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da:

Orreaga, Auritz eta Erroibarko Udalek osatutako Batasunari eskatzea, BENAC Abogados SLP enpresak egin duen txostena kontuan ahrtuz, erabakitzea aurreko idazkariari, Pedro Cenoz Iraguiri 2010 eta 2011 urteetan sartu zituen 300 aparteko ordu gisa ordaindu zitzaizkion 6.788,70 euro itzultzea eskatzea.

Idazkariak hitza hartu du eta esan du Cenoz j. gaiarekiko interesa duenez, erabakia jakinarazi beharko litzaiokeela, eta alkateak erantzun du hori Batasuneko eskumena denez, batasunak erabakia hartu eta interesatuari jakinarazi beharko diola.

### **13.- GIA UDAL KUDEAKETAREN PROGRAMAREN AURREKONTUA**

Alkateak, de Potestad jnk., hitza hartu du eta jakinarazi du nahiz eta aurreko bilkuran erabaki zen ANIMSARI eskatzea gaur egungo informatika zerbitzu orokorra aldatzea eta CSRra pasatzea, Rural Kutxarekin hitz egin dutela eta ikusi dela kudeaketa programa merkeago dela, eta eskatu zitzaiola teknikari bat udaletxera etortzea GIA programa administrariei erakustera beraien iritzia ezagutzeko: Eta arazorik jarri ez dutenez, proposatu du kudeaketa programa aldatzea eta Rural Kutxako GIA programa jartzea, urtero 1.146 euroko kostua baitu eta ANIMSAkoak berriz 1.500 €.

Aho batez erabaki da:

1.- Alkateak, de Potestad jnk., egin duen proposamena onartzea eta Rural Kutxak duen GIA programara aldatzea.

2º.- ANIMSARI eta Rural Kutxari erabakiaren berri ematea.

### **14.- 2016ko LANGABETUEN PLANA**

Alkateak, de Potestad jnk., hitza hartu du eta jakinarazi du Nafarroako Gobernuak toki entitateek langabetuak kontratatzeke deialdia atera duela eta ezarritako baldintzei buruzko informazioa eman du. Aldaketa nagusiak dira diru-laguntza eman aurretik kontratazioak egin behar direla, eta eskaerak aurkeztu ahala ebazten direla, bana eta dagoen aurrekontua kontuan hartuz. Diru-laguntza kostuaren %50 da, gutxi gora behera, kontratazioa gutxienez 3 hilabetekoa izan behar du eta gehienez ere 6 hilabetekoa eta lanaldia gutxienez %50ekoa, eta 1000 biztanle baino gutxiagoko entitateek 3 pertsona kontratatu ahal dituztela. Esan du baita ere kontratazioa egin aurretik Departamentuari eskatuko diola dirua egonen den edo ez esatea, toki entitate txikientzako arrisku handia baita. Horrekin guztiarekin badirudi gizarte enplegu babestua eta oinarritzko errentako deialdiak berri nahi direla.

Dauden beharren arabera zenbat langile kontratatuko diren eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da bi pertsona kontratatzea lanaldi osoan, E mailan, bat sei hilabeterako, maiatzaren 1etik urriaren 31 arte, eta beste bat lau hilabeterako, maiatzaren 1etik abuztuaren 31ra.

### **15.- OINANANDIKO OIHAN APROBETXAMENDUAREN BALDINTZA PLEGUAREN ONESPENA.**

Alkateak, de Potestad jnk., hitza hartu du eta jakinarazi du Nafarroako Gobernuak Oianandiko oihan aprobetxamendua arautzen dituen baldintza plegua igorri duela eta orain Udalak hori onartu behar duela; lote bakarra da, Oianandin, Patxaranberro-Basajaunberro mendian, 682 pagoz osatua, 385 m3 egur eta 607 m3 enbor txikiz osatua eta haren oinarritzko prezioa 25.250,89 eurokoa da. Modu berean jakinarazi du baso

zainarekin mintzatuko dela jakiteko bidexka egiteko diru-laguntza lortu ahal den, lotea gehiago balioko duelako.

Aho batez erabaki da:

1.- Oianandin, Patxaranberro-Basajaunberro mendian oihan aprobetxamendua enkante publikoan ateratzeko baldintza plegua onartzea; lotea 682 pagoz osatua dago, 385 m<sup>3</sup> egur eta 607 m<sup>3</sup> enbor txiki egiten dute eta haren oinarritzko prezioa 25.250,89 eurokoa da

2.- Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

## **16.- MUSIKA ESKOLA- ITZAKO UDALA SARTZEA**

Idazkariak, Ezcurra ak., jakinarazi du Itzako Udalak Orreaga Musika Eskolako Patronatuan sartzeari eskatu duela.

Aneva zinegotziak dio musika eskolaren inguruan izandako bileran, besteak beste, gai hori landu zela. Dena den uste du nahasketa handia dagoela funtzionamenduan, antolakuntzan eta kostuen banaketan eta gaia asko daudela konpontzeko. Alkateak, de Potestad jnk. Dio NUKFan musika eskolen gaia lantzeko lan-taldea sortu dela. Modu berean, nahiz eta gaur egun Itzako Udala sartzeari onartu ahal den, uste du tokiko maparen gaia lantzen denean agian ez duela horrelakorik onartuko batez ere kokapen geografikoarengatik. Beste aldetik, uste du Aezkoako bederatzi udalak inplikatu beharko lirakeela, musika eskolako patronatua sartuz, kuotak entitate guztien artean banatuz, are gehiago eskolan Aezkoako bizilagunak matrikulaturik daudela kontuan hartuz.

Udalbatzak erabaki du aho batez: 1º.- Itzako Udala Orreaga Musika Eskolan sartzeari onartzea, musika eskolako Patronatua osatzen duten gainontzeko toki entitateek dituzten eskubide eta betekizun berdinekin. 2.- Aezkoako Udal guztiekin bilera egitea Musika Eskolaz aritzeko eta eskolan sartzeari proposatzeko.

## **17.- BUNKERRETAKO AURREKONTUAREN TXOSTENA**

Avilako Militar Artxibo Nagusira egindako bisitaldiari dagokionez, Mendebaldeko Pirinioko bunkerren gaineko informazioa jasotzeko, Karrika eta Gaztelu zinegotziek egin zuten lanaren txostena aurkeztu dute bai eta egindako gastuen zerrenda eta udalarentzako interesgarriak izan daitezkeen dokumentuan kopiaren aurrekontua, guztira 228 € direlarik. Modu berean jakinarazi da badagoela ikusi izan zuten dokumentazio asko. Gaztelu zinegotziak dio dokumentazioaren barne bazeudela marrazki pila, oso onak, eta gaiarekin aurrera egitea proposatu du, marrazki horiekin erakusketa bat antolatzeko.

Aho batez erabaki da: 1.- 228 euroko aurrekontua onartzea eta aurrekontuan sartutako dokumentuak eskatzea. 2.- Karrika zinegotziari joan-etorriaren aurrekontua onartzea, kilometro bakoitzeko 0,25€ ordainuz, guztira 262 €

## **18.- KULTURA ZINEGOTZIAK IRKUS ROBLES ARANGIZEN LANAREN ERAKUSKETA EGITEKO PROPOSAMENA**

Ondoren Gaztelu jnk. hitza hartu du eta honako proposamena egin du:

- Kontuan hartuz Irkus Robles-Arangizek harreman estua duela gure herriarekin.
- Kontuan hartuz aipatutako bizilagunak kultur jardueren sustapenean laguntza ematen duela (Kantu Eguna, Igautreak, Artzai Txakur-Txapelketa, eta abar)
- Kontuan hartuz bi olio-pintura eman dizkiola Aurizko herriari, biak Gabino Urtasunek markoztatutak, eta Udalak bizilagun guztien aurrean esker onez hartu dituela.

Zinegotzigo honek Robles-Arangiz jaunaren ibilbide artistikoa balioztatu nahi du, eta berak nahi badu bere lanen erakusketa egingo litzateke Kultur Etxean abuztuaren 13tik 28ra (biak barne), bere lanak bertakoei zein kanpokoei erakusteko.

Gaztelu jaunaren proposamenarekin bat eginez, aho batez erabaki da:

Robles-Arangiz jaunari gonbidatzea, bera ados baldin badago, bere lanen erakusketa egiteko Kultur Etxean abuztuaren 13tik 28ra (biak barne), bere lanak bertakoei zein kanpokoei erakusteko.

## **19- BESTERIK**

Toma la palabra el alcalde Sr. De Potestad que informa sobre los siguientes asuntos:

### **Mendikoareneko ur-ihesa**

Jakinarazi da Mendikoaren etxe ondoan zegoen ur-ihesa konpondu dela, nahiz eta jabeari ez zion eragiten ur asko galtzen baizen. Modu berean kontagailua Mendikoaren etxeko kanpoaldean jarri da.

Pedro Juan Karrika zinegotziak dio toki berean kuarteletik zetorren urak gainezka egiten zuela eta toki hori urez beterik zegoela, hortaz konponketa hori aprobetxatuz paretaren ondotik zanga bat egin zen Guardia Zibilaren kuarteletik bidera joaten zen ura biltzeko. Hortaz, bi arazoak konpondu dira.

Dufur zinegotziak proposatu du Nafarroako Gobernuarekin mintzatzea Orreagatik honaino dagoen arekan ur asko datorrela eta Ipeteako bidera joaten da, bide hori hondatuz. Karrika Narbaitz zinegotziak hori baieztatu du. Proposatu da lehenengo mendi zainarekin mintzatzea eta gero erreklamazio idatzia bidaltzea.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Argiteria Publikoa, deialdia**

Karrika Narbaitz zinegotziak dio argiteria publikoa berritzeko lanei aurre egiteko dauden diru-laguntzei dagokienez, ezin dela horietan parte hartu inbertsioa 70.000 eurokoa baita eta ez dagoelako horri aurre egiteko diru nahikorik. Alkateak, de Potestad jnk., esan du agian Nafarroako Gobernuak martxan jarriko duen azpiegituren plan berrian sartu ahalko direla, mota horretako lanek zuzendari planetan sartzea aurreikusita dagoelako. Modu berean jakinarazi du argiteriaren gastu finkoak berrikusten ari dela eta beste konpainia batzuei aurrekontuak eskatzen ari dela, kostuak merkatu ahal diren aztertzeko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Bidausi Mankomunitatea eta Auñamendi Mankomunitatea**

Jakinarazi da Bidausi Mankomunitateak egindako batzarrean haren Presidente berria Garraldako alkatea, Francisco Javier Juanperez dela eta Auñamendi Mankomunitateko bilera 2016ko martxoaren 16an egingo dela eta udal honetatik Yoller zinegotzia eta alkatea bera joango direla.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

**Sortzetiko Nevus Erraldoi gaixotasuna dutenen Espainiako Elkarte (Aonevus)**

Alkateak, de Potestad jnk., jakinarazi du Yoller zinegotziarekin batera Jesus Goñirekin elkartu zirela, Aonevus elkarteko kidea, eta esan ziela martxoaren 24an etorriko zirela Nafarroara eta bere urteko batzarra Auritzen egin nahi dutela eta Kultur Etxea erabiltzeko baimena eskatu dutela. Beste aldetik Aurizko ostalariek, Loizu hotela, La Borda jatetxea, Txikipolit jatetxea eta Burguete hotela, laguntza emango dute 106 pertsoneri bazkaltzen ematen, eta Udalak egin duten ahalegina eskertu nahi die.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

**Udalkideen dietak, 2015 eta 2016**

Alkateak, de Potestad jnk., argi utzi du udalkideek beren dietei dagokien dirua, 2015ekoa, sarbideen kontrol sistema jartzeko erabiliko dela, eta 2016koa oraindik ez dela erabaki aukera bat baino gehiago dagoelako.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

**Iraileko ferria**

Alkateak jakinarazi du aurten Aezkoako Eguna Hiriberrin ospatuko dela eta udazkeneko feriarekin bat egiten duela eta iraileko laugarren igandera pasatu beharko litzatekeela, uste baitu ez dela egokia bi lehiaketa edo erakustaldi egitea aldi berean gurea bezalako eskualdean.

Dufur jnk. dio Aurizko ferria Aezkoako Eguna baino zaharragoa dela eta data errespetatu beharko litzatekeela.

Alkateak, de Potestad jnk. Erantzun du egutegia Aurizberriko besten datek baldintzatzen dutela eta aste honetan Landabere jnk., presidenteak, datak eman dizkiola.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

**Tokiko mapa**

Alkateak, de Potestad jnk., jakinarazi du atzo bilera egin zela Irunberrin Tokiko Administrazioako departamentuak eta Nafarroako udal eta kontzejuen Federazioak antolatua, etorkizuneko toki entitateen azterketa egiteko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Azkenik, eta premiaz, alkateak, de Potestad jnk., jakinarazi du Fundazioaren diru-laguntza deialdiaren bidez 6000 euroko laguntza eman zaiola Akelarre proiektuari. Laguntza jasotzeko bi aldeek hitzarmena sinatu behar dute. Modu berean jakinarazi du Karrika Iribarren zinegotziak Jon Beunzarekin batera proiektua garatzeko plana prestatuko dutela.

Aho batez erabaki da proiektua onartzea eta alkateari, de Potestad jn., baimena ematea Nafarroako Kutxa Fundazioak eskatutako hitzarmena sina dezan.

**21.- ESKAERAK ETA GALDERAK.**

- Dufur zinegotziak hitza hartu du eta esan du Xuringoan dagoen igelen putzuaren parean ibaiak bidea hondatu behar duela eta proposatu du eskuinaldetik lurra kentzea eta harriak jartzea, lubeta bat eginez. Gaia ingurumeneko batzordean aztertuko da, auzolanen bidez egin daitekeelako. Alkateak, de Potestad jnk., dio Fermin Izco ingeniariarekin mintzatuko dela jakiteko lan horiek baso jardueren deialdian sar daitezkeen eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoko teknikariari ere gaia aipatuko dio.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez bilkurari bukaera eman zaio 19,40ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.